II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AÑANAKO UDALA

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2019ko ordainagiriak jendaurrean jarri eta kobratzea

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2018ko errolda egin denez gero, jendaurrean jartzen da, interesdunek egoki deritzeten erreklamazioak aurkez ditzaten. Horretarako hamabost egun baliodun izango dituzte iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Agiriak interesdunen eskura daude udal idazkaritzan, jendaurreko ordutegian.

Halaber, iragartzen da zerga epe hauetan kobratuko dela:

Borondatezko epea: 2019ko otsailaren 20tik martxoaren 20ra.

Borondatezko aldian ordaintzeko epea amaiturik, ordaindu ez diren kuotetarako, berez eta besterik gabe betearazte aldia hasiko da. Horrek berarekin ekarriko du berandutze interesak eta egoki diren errekarguak eskatzea, Arabako zergen 6/2005 Foru Arauaren 26. eta 28. artikuluetan ezarritakoaren arabera, baita premiamendu bidearen kostuak ere, bidezko denean.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Gesaltza Añana, 2019ko otsailaren 7a

Alkatea
JUAN CARLOS MEDINA MARTINEZ

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2019.02.15 06:41:39 Z